

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Laneko Ikuskatzaitzak lan-arriskuen prebentzioko kontrola handituko du 2015ean

*Laneko Ikuskatzaitza eta Gizarte Segurantzako Nafarroa-Estatua batzordea datorren urterako jarduerak planifikatzeko bildu da*

Martes, 25 de noviembre de 2014

2015ean zehar, Laneko Ikuskatzaitzak lan-arriskuen prebentzioko arloan ikuskatzeko jarduerak handituko ditu sektore guztietan gaur egun dagoen jarduera ekonomikoaren areagotzearekin bat etorriz; berrikuntza modura ere, kontrolak egingo ditu adingabekoen lan-baldintzetan, nekazaritza-sektorean eta osasun-sektoreko arrisku biologikoetan.



Laneko Ikuskatzaitza Batzordearen bilkura.

Laneko Ikuskatzaitzak eta Gizarte Segurantzako Lurralde Batzordeak gaur egindako bilkuran hartutako erabakietako bat da hori. Batzorde hori Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak ordezkariak osatzen dute. Nafarroako Gobernuak Ordezkaritzan bildu dira 2014n egindako lanaren balantzea egiteko eta 2015eko jarduerak planifikatzeko.

Batzorde honen ikuskatzeko jarduerak lau gaitan banatzen dira: lan-arriskuen prebentzioa; enplegua eta lan-harremanak; Gizarte Segurantzak; ekonomia irregularra eta atzeritarren lana.

### Ekonomia irregularren gaineko zaintza areagotzea

Halaber, ekonomia irregularren eta atzeritarren lanaren gaineko jarduerak areagotzea aurreikusten da, aitortu gabeko lanari eta gezurrezko enpresen sorrerari aurre egiteko, honako helburu honekin: langileen lan-eskubide eta sozialen hondatzeari aurre egiteko, Gizarte Segurantzako diru-sarrerak murrizketari, eta beren lege-betebeharrak betetzen dituzten enpresa ekintzaile nahiz autonomoekiko lehiakortasun desleialari aurre egiteko.

Bestalde, iruzur-egoerak ekiditeko Gizarte Segurantzaren arloan planifikatutako jarduerarekin jarraituko da: okerreko erregimenak sartzeko; erakundearekiko zorrak dituzten enpresak; oinordekotzak, enpresataldeak eta azpikontratazioak; gizarte-segurantzako prestazioak; okerreko bajak kontrolatzea; infra-kotizazioak hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeagatik edo okerreko hobariak...

Azkenik, lan-harremanen esparruko jarduerak murriztea aurreikusten da, egun izapidetutako Enplegu Erregulazioko Espediente gutxiago egotearen ondorioz, eta ikuskatzeko egintza lan-kontratazioko kontrolean handituko da haren hainbat modalitatetan. Emakume nahiz gizonen arteko berdintasun-arloko jardueri eusten zaie eta baita soldata eta lan-denboraren arloko erreklamazioei ere.

### **2014ko balantzea**

2014an zehar, gezurrezko 11 enpresa hauteman eta baliogabetu dira, arau-hausteko 511 akta egin dira, langabezia-prestazioetan batez ere (262 enpresei eta 249 langileei), 1.672.931 €-ko zehapen-proposamenarekin eta 1.047.148 €-ko prestazio-itzulketarekin. Gainera, 1.368 alta baliogabetu dira Gizarte Segurantzaren eta 991.067 € gutxitu da berankortasunean.

Ekonomia irregularrean, aipagarria da ikuskatzeko jarduerak areagotu egin direla Estatuko Segurtasun Indarren laguntzarekin (baterako 856 jarduera 2014ko azaroaren 14an; 2013 guztian, 647 egin ziren eta 464, 2012 guztian).

### **Batzordekideak**

Bilkura Nafarroako Gobernuak Lan eta Arriskuen Prebentzioko zuzendari nagusi Imelda Loreak zuzendu du. Gainera, Foru Gobernutik ere Lan Zerbitzuko zuzendari Javier Zubicoa izan da. Batzordeko kidea da ere, Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasuneko Institutuko zuzendari-gerente Soledad Aranguren.

Estatuko Administrazio Zentralaren aldetik, bertaratu dira: Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Alba; Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioako Kudeaketari Laguntzeko zuzendariorde nagusi Soledad Ramos García; GSINeko eta Diruzaintza Orokorreko lurralde-zuzendari M<sup>a</sup> Isabel Catalán eta José Félix Músquiz, hurrenez hurren; bai eta Laneko Ikuskatzaitzako lurralde-zuzendari Guillermo Dachary ere.